

8-FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure funtsezko jardueretako bat sinergia da, taldean lan aritzearekin batera errazagoa izan da gure proiektua aurrera eramatea. Taldean aritzeaz gain enpresak eta ONG-ak behar ditugu.

- **Zein dira egin behar dituzuen gauzarik garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?**

- **Ekoizpenerako** taldean aritu behar dugu. ONG-ak hondakinak lortu behar dituzte. **Zientzialariek**, gure proiektua aurrera eramateko moduak aurkitzea eta **langile kualifikatu** batzuk zientzialariek pentsatzen duten modua aurrera eramateko. Talde barruko pertsona eta langile guztiak behar dira proiektua aurrera eramateko. Taldean aritzeaz gain gure enpresak ONG-ak eta enpresa batzuen laguntza behar du. Beste aldetik, enpresa hau aurrera eramateko, bezero kontzientziatuak ezin bestekoak dira ekoizten duguna kontsumitzeko. Kontsumitzaileen kopurua igotzeko, publizitatearen bidez, bezeroak ohartu behar dira gure ekosisteman gertatzen diren arazoetan eta produktu honi esker gure ekosistema hobetu ahal dugula.
- Proiektua egiterakoan, beti arazoak sortuko dira, baina talde lanean arazo horiei aurre egiten jakin behar dugu. Horretarako sinergia behar da. Sinergian, batek bestea laguntzen du eta azkenean talde lana bihurtzen da.
- Plataformako edo sareko jarduerak, teknologiaren bidez egingo ditugu. Batzuk web guneaz arduratuko dira eta beste batzuk bezeroen eskariez arduratuko dira. Informatikarekin beste enpresekin kontaktatu ahal dugu.

